

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Nerbioi Itsasadarraren Ezkerraldeko  
Udalerrien Mankomunitatea**

**Mancomunidad de Municipios de la  
Margen Izquierda de la Ría del Nervión**

**2010**



## **AURKIBIDEA / ÍNDICE**

<b>0. LABURDURAK</b> .....	<b>5</b>
<b>I. SARRERA</b> .....	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA</b> .....	<b>8</b>
II.1. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA .....	8
II.2. URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	8
<b>III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI</b>	
<b>BURUZKO IRIZPENAK</b> .....	<b>10</b>
III.1. IRIZPEN OROKORRAK .....	10
III.2. AURREKONTUA ETA KONTABILITEA .....	10
III.3. LANGILERIA .....	10
III.4. BESTELAKO ALDERDIAK .....	11
<b>IV. FINANTZA ANALISIA</b> .....	<b>12</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK</b> .....	<b>14</b>
<b>ALEGAZIOAK</b> .....	<b>17</b>
<b>0. ABREVIATURAS</b> .....	<b>23</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>25</b>
<b>II. OPINIÓN</b> .....	<b>26</b>
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD .....	26
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES .....	27
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL</b>	
<b>INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN</b> .....	<b>28</b>
III.1 CONSIDERACIÓN GENERAL.....	28
III.2 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD .....	28
III.3 PERSONAL .....	28
III.4 OTROS ASPECTOS .....	29
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO</b> .....	<b>30</b>

<b>V. CUENTAS ANUALES</b> .....	<b>32</b>
<b>ANEXOS</b> .....	<b>35</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado .....	35
A.2 Tasas y otros ingresos .....	35
A.3 Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes .....	36
A.4 Gastos de personal .....	36
A.5 Compras de bienes y servicios .....	37
A.6 Zabalgarbi, SA .....	37
A.7 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial .....	38
A.8 Clasificación funcional del gasto .....	38
<b>ALEGACIONES</b> .....	<b>39</b>

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 31a  
Vitoria-Gasteiz, 31 de mayo de 2012



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## 0. LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
SPKL	30/2007 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EFPL	6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
16/1997 Legea	16/1997 Legea, Euskal Funtzio Publikoaren Legea aldarazten duena.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena.
3/1995 FA	3/1995 Foru Araua, Bizkaiko Udalez Gaindiko Erakundeak Arautzen dituena.
EDGNFLH	1732/1994 Errege Dekretua, Gaikuntza Nazionaleko Funtzionarioentzat gordetako Lanpostuak Hornitzeko dena.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
APKLTB	2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua.
TATB	781/1986 Legegintzazko Errege Dekretua, Toki Araubidearen gaietan indarreko xedapenen Testu Bategina.
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia
Udalhitz	Tokiko euskal erakundeen lanerako baldintzak arautzen dituen akordioa.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## I. SARRERA

HKEEk otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako lan programak agindutakoa betez, Nerbioi Itsasadarraren Ezkerraldeko Udal Elkartearen (aurrerantzean Mankomunitatea) Kontu Orokorra fiskalizatu du, 2010eko ekitaldiari dagokiona.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, ondasun eta zerbitzuak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Mankomunitatearen egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita udalaren aurrekontuen likidazioa ere.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Mankomunitatearen egoera ekonomikoaren azterketa finantzarioa.

Mankomunitatea 7 udalek osatzen dute:

	Biztanleria
Udala	1/1/10
Barakaldo.....	99.321
Portugalete .....	47.856
Santurtzi .....	47.101
Sestao .....	29.224
Trapagaran.....	12.317
Abanto Zierbena .....	9.724
Ortuella.....	8.435
<b>GUZTIRA</b>	<b>253.978</b>

Mankomunitatea 1976an sortu zen osagai dituen udalerrien hondakin eta zaborrak kudeatzeko helburuarekin. Hondakinak hasiera batean euren isurtegi batera isurtzen ziren eta 1988az geroztik Artigasko isurtegian (Bilbo). 1993an Mankomunitateak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Energiaren Euskal Erakundeak, finantza-erakunde batek eta bi enpresa pribatuk, guztien artean Zabalgarbi, SA sozietatea sortu zuten, lurraldeko hondakinen tratamendua egiten duen Bizkaiko instalakuntza bakarraren jabe den sozietatea (errauatea eta argindarra sortzea). Mankomunitatea Zabalgarbi, SAren akzioen % 5aren jabe zen 2009ko abenduaren 31n eta arestian aipatutako bi enpresa pribatuek, berriz, % 60aren jabetza zuten.



Mankomunitatea Osoko Batzorde batek gobernatzen du, kide diren udaletako 17 zinegotzik osatua; bertako kideetatik Batzorde Iraunkorra (7 kide), lehendakaria eta lehendakariordea hautatzen dituzte.

## **II. IRITZIA**

### **II.1. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### **LANGILERIA**

1. 2003an Osoko Batzordeak LZ aldatu eta Gerente postuaren sailkapena zuzendu zuen, goi zuzendaritzako lan kontratua izatetik funtzionario izatera aldatuz; horren ondorioz, lanpostu berria betetzeko hautaketa prozesua deitu zuen, aurreko gerenteari mugatu zitzaiona. Hautaketa prozesu mugatu hauek lan kontratu finkoa duten langileentzat daude aurreikusiak (16/1997 Legearen Xed. Gehig. 2.a) eta honenbestez, funtzionario postu berriaren zuzkidura berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatuko zituen prozesu ireki bidez egin behar zatekeen.
2. Mankomunitatea Idazkari-Artekari egitekoak beteko dituen lanpostua izatetik salbuetsia dago, horretarako eskumena duen EAEko atalaren 2004ko uztailaren 7ko Ebazpen bitartez. Ebazpen honek agintzen zuen Mankomunitatean egitekoak elkarteratutako udalerrietako gaitutako funtzionarioek beteko dituztela, horretarako bereizten den funtzionarioaren lanpostu nagusiak bere dituen egitekoei gaineratuz. Mankomunitateak 1993an izendatu zen funtzionarioari ordainsaria ordaintzen jarraitu zuen, langileriaren kapituluko diru-izendapenen kontura; 2010ean 15.256 euro egin zituen. Nolanahi den ere, zerbitzua ematen zuen mankomunitateko udalari ordaintzea litzateke egokia, aldez aurretik dedikazioa eta udal administrazioari ordaindu beharreko ordainsaria adostuta.

Epaitegi honen iritzira, Mankomunitateak, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako ezbetetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2010eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II.2. URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen 2010eko abenduaren 31n Mankomunitatearen gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funts Propioetan eragina duten doiketak:

Kontzeptua	Aurrekontukoa Diruz. Geldik.	Euroak milakotan		
		Ondarekoa		Funts Propioak
		Aktiboa	Pasiboa	
10.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.2 Ecoembes: Ontziak errebaloriz. 2010eko azaro eta abendua .....	47	47	-	47
A.6 10/12/31n Zabalgardi, SAren maileguak sortutako interesak.....	-	81	-	81
<b>GUZTIRA</b>	<b>47</b>	<b>128</b>	<b>-</b>	<b>128</b>

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan azaleratutako salbuespenen eragina salbuetsita, Mankomunitatearen Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2010eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2010eko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.1. IRIZPEN OROKORRA

Mankomunitateak jarduera maila mugatua du (administrazioko egitekoak, batik bat), 2004az geroztik Zabalgarbi, SAK hartu baitu bere gain Bizkaiko Lurralde osoko hondakinen kudeaketa.

Mankomunitatearen jarduera egun duen egituraketaren arabera aztertzea gomendatzen dugu.

#### III.2. AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2010eko ekitaldirako aurrekontua behin-betiko 2010eko otsailaren 22ko Osoko Batzordeak onetsi zuen; ordea, arautegiak (10/2003 FAren 15. art.) behin-betiko urtea hasi aurretik onestea aurreikusten du.
- Aurrekontuari bi aldakuntza egin zitzaizkion (transferentzia eta gaikuntza) eta gastuen aurreikuspena guztira 44.782 euroan gehitu zuten; ez ziren, ordea, zegozkion aldakuntza-espeditenteak izapidetu.

#### III.3. LANGILERIA

- Mankomunitateak ez zuen aldizkari ofizialetan argitaratu (EFPLren 102.3 art.) langileen lan baldintzak arautzen dituen erabakia, 2010eko abenduaren 21eko Osoko Batzordeak onetsitakoa.
- 2008an lanpostuaren titularrak erretiroa hartu izanaren ondorioz, LZn jaso dagoen lan kontratuko plaza bat hutsik dago; alabaina, komenigarria da hori amortizatzea, LZ aurrekontuko plantillarekin bat etor dadin.
- TAOALen 75.5 artikulua agintzen du argitaratu egin behar direla udal karguen kalteordain eta bertaratzeari dagokionez hartzen diren erabakiei; Mankomunitateak, ordea, ez zuen manu hau bete. 2010ean Osoko Batzorde eta Batzorde Iraunkorreko 17 udalkideei bertaratzeagatik 10.765 euroren dietak ordaindu zitzaizkien.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### **III.4. BESTELAKO ALDERDIAK**

- Mankomunitatearen hasierako estatutuak 1976koak dira eta ez dituzte gaurkotu; horrek 3/1995 FAREN Xedapen Iragankor 1.ak finkatutako urtebeteko epea urratzen du. Halaber, ez dute kide diren bi udal gehitu izana ere barne hartzen.
- Ez aurrekontuak, ez kontu orokorrak, ez dituzte Mankomunitatearen jarduerak dituen helburu edo adierazleak jasotzen.



#### IV. FINANTZEN ANALISIA

Mankomunitateak azken ekitaldian likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZEN ANALISIA	Euroak milakotan		
	2008(*)	2009(*)	2010
Ecoembes: Ontzien balio energetikoa handitzea .....	234	261	258
Udalen transf. arruntak- hondakinen tratamendu kostuak .....	5.046	5.095	4.956
Udalen transf. arruntak- kostu orokorretan eragina.....	261	213	87
3 eta 4 kap. ondare sarrerak eta bestelako txikiagoak .....	159	(8)	46
<b>A. Diru-sarrera arruntak (3tik 5erako kap.).....</b>	<b>5.700</b>	<b>5.561</b>	<b>5.347</b>
Langileria gastuak (1. kap.) .....	306	122	121
Ondasun arrunten erosketak-hondakinen tratamendua .....	5.046	5.065	5.027
Ondasun arrunten erosketak-2. kap. gainerako gastuak.....	84	49	37
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	12	12	12
<b>B. Funtzionamendu gastuak.....</b>	<b>5.448</b>	<b>5.248</b>	<b>5.197</b>
<b>Aurrezki gordina = Emaidza arrunta = Aurrezki garbia (A-B).....</b>	<b>252</b>	<b>313</b>	<b>150</b>
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	-	-	-
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	1	-	7
<b>KAPITALEZKO ERAGIKETEN EMAITZA .....</b>	<b>(1)</b>	<b>-</b>	<b>(7)</b>
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	251	313	143
Diruzaintzako geldikina .....	1.725	2.027	2.199
12/31n zorpetzea.....	-	-	-

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** Behera egin dute 2008 eta 2010 bitartean, batik bat udalei funtzionamendu gastu kontzeptuan eragindakoa murriztu delako eta 2008an, hasierako urtean, diru-sarrera ezohikoak izan zirelako. Diru-sarrera iturri nagusi den isurkinen kanonen jasanarazpenak bariazio oso txikiak izan ditu.

**Funtzionamendu gastuak:** 2008 eta 2010 bitartean egin dute behera, honako xehapen honekin:

- Langile gastuek behera egin dute 2008an langile batek erretiroa hartu zuelako eta 2009 eta 2010ean aldi baterako langileen kontratazioak ez gauzatzeak urte horretan duen eraginagatik.
- Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak: Hondakinen tratamenduagatik ordaintzen diren kanona da osagai nagusia; honek bariazio oso txikiak izan ditu eta gainerako gastu osagaien murrizketa ekarri du.



**Aurrezki gordina eta emaitza arrunta:** Soberakinak izan dira Ecoembes konpentsatsetik eskuratutako sarrerak Mankomunitatearen funtzionamendu gastuak baino handiagoak izan direlako eta honenbestez, kide dituen udaletatik funtzionamendu gastuetarako jasotako transferentziek ekitaldi bakoitzaren emaitza handitu dute.

**Kapitalezko eragiketen emaitza:** Mankomunitatearen jarduerak inbertsio oso txikiak eskatzen ditu eta horrek aztertutako aldiaren ia batere inbertsiorik ez izatea dakar.

**Diruzaintza geldikina:** Magnitude honek gora egin du soberakinak izan direlako; horiek 2010eko sarrera arruntaren % 41 egin dute. Geldikin hori guztiz erabilgarria da, baina Mankomunitateak Zabalgarbi, Saren balizko kapital-handitzei aurre egiteko baliatzea aurreikusi zuen.

**Ondorioa:** Mankomunitatearen sarrera eta gastuen tamaina hein handi batean beste erakunde batzuek egiten duten hondakinen tratamendua ordaindu eta udalei eragitera mugatzen da; eragiketa honek ez du inongo emaitzarik sortzen. Mankomunitatea osatzen duten udalen ekarpenek soberakinak sortu dituzte aztertutako aldiaren, diruzaintza geldikina 2,2 milioi eurokoa izatea eragin dutenak, izan ere, ontzien balio energetikoa handitzetik (Ecoembres) eskuratutako diru-sarrerak funtzionamendu gastuak baino handiagoak izan dira; hau dela eta, Mankomunitatea autofinantzatu egiten da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### 2010-EKO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	AURREKONTUA				ESKUBIDE. KITAT.	KOB.R. KOB.R.	GABEA	% EXEK.
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.				
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.2	221	42	263	300	260	40	114
4 Transf. eta dirul. arruntak.....	A.3	5.194	-	5.194	5.043	4.139	903	97
5.- Ondare sarrerak.....		1	3	4	4	4	-	100
8.- Finantza aktiboen aldak.....		6	-	6	-	-	-	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>5.422</b>	<b>45</b>	<b>5.467</b>	<b>5.347</b>	<b>4.403</b>	<b>943</b>	<b>98</b>
<b>GASTUAK</b>								
1.- Langileria-gastuak.....	A.4	128	-	128	121	121	-	95
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.....	A.5	5.253	45	5.298	5.064	4.578	486	96
4 Transf. eta dirul. arruntak.....		12	-	12	12	12	-	100
6.- Inbertsio errealak .....		23	-	23	7	-	7	30
8.- Finantza aktiboen aldak.....		6	-	6	-	-	-	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>5.422</b>	<b>45</b>	<b>5.467</b>	<b>5.204</b>	<b>4.711</b>	<b>493</b>	<b>95</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>143</b>			

### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIER.	KOBR./	AZKEN
	ZORRA	BALIOG. ORDAIN.	ZORRA
Zordunak .....	888	-	888
Hartzekodunak .....	530	-	530
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>		<b>-</b>	

### AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak.....	5.347
Aitortutako obligazioak.....	5.204
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA</b>	<b>143</b>
<b>AURREKO EKITALD. KITATUTAKO AURREKONTU ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>143</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikin likidoa 10.1.1ean.....	2.026
Aurrekontuaren emaitza .....	143
Kaudimengab. zuzkiduraren hornid. bariazioa .....	-
2009ko aurrek. emaitzan jaso gabeko sarrerren hartzekodunak .....	30
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 10.12.31-N</b>	<b>2.199</b>
Diruzaintza .....	1.263
Aurrekontuko zordunak.....	943
Aurrekontuz kanpoko zordunak .....	504
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(493)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	(18)
Kaudimengabeziatarako zuzkidura .....	-
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 10.12.31-N</b>	<b>2.199</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina	-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>	<b>2.199</b>
<b>ZORPETZEA 10/12/31n</b>	<b>-</b>

EGOERAREN BALANTZEA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan	
AKTIBOA	ERANSK. 31/12/10	31/12/09	PASIBOA	ERANSK. 31/12/10	31/12/09
IBILGETUA	1.805	1.800	FUNTS PROPIOAK	4.004	3.826
Ibilgetu ezmateriala.....	7	-	Ondarea .....	202	202
Ibilgetu materiala .....	68	70	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	3.624	3.323
Ibilgetu finantzarioa .....	A.6 1.730	1.730	Galera-irabaziak.....	A.7 178	301
ZORDUNAK	947	894	HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA	511	576
Aurrekontuzkoak	943	888	Aurrekontuzkoak .....	493	530
Aurrekontuz kanpokoak .....	4	6	Aurrekontuz kanpokoak .....	18	16
Kaudimengabeziatarako zuzkidura	-	-	Udalen sarrerren itzulketa .....	-	30
FINANTZA KONTUAK	1.763	1.708			
Aldi bateko finantza inbertsioak	500	500			
Diruzaintza .....	1.263	1.208			
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>4.515</b>	<b>4.402</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>4.515</b>	<b>4.402</b>

2010-EKO EKITALDIAREN GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA				Euroak milakotan	
GASTUAK	2010	2009	SARRERAK	2010	2009
Langileria-gastuak.....	177	133	Kudeaketa arrunteko bestel. sarrerak.....	300	262
Ibilgetua amortizatzeko zuzk.....	-	-	Jasotako transf. eta diru-lag.....	5.073	5.279
Kanpoko zerbitzuak .....	5.008	5.103			
Emandako transf. eta dirul. arruntak....	12	12			
<b>USTIAPENAREN MOZKINA</b>	<b>176</b>	<b>293</b>			
FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	4	8	APARTEKO EMAITZA NEGATIBOAK	2	-
<b>EKITALDIKO MOZKINA</b>	<b>178</b>	<b>301</b>			





## ALEGAZIOAK

### I. IRITZIA

#### II.1. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA LANGILEAK

1.- 2010. ekitaldia fiskalizatzeari buruz, HKEEk duela zortzi urte (2002-2003 ekitaldie-tan) jatorria izan zuen eta ebatzi zen espedientea fiskalizatu du. Langileen arlokoa da eta funtzio publikoaren eta lanaren eremuetan legezketasunari buruzko interpretazio zorrotzak egiten ditu. Era berean, laurogeita hamargarren hamarkadatik herri-administrazioen zerbitzura dauden lan-kontratuko langileen eta funtzionario bihurtzearen inguruan egin diren interpretazio juridiko eta judizial konplexuak eta eboluzionatu dutenak lantzen ditu.

Eusko Jaurlaritzako Tokiko Administrazioaren Zuzendaritzak Mankomunitateari 2002. urtean baino lehen hizkuntza-eskakizunak atxikitzea eskatu zion eta fiskalizatu den hautespen-prozesua ondoren izapidetu zen. Horrez gain, Euskadiko Funtzio Publikoaren Legea bera kontuan hartuta, erakunde publikoen giza baliabideak berrantolatzea edo, hala bazegokion, berriz sailkatzea xedatzen zuen. Ildo horri jarraiki, gerentziaren hainbat funtzioak, lan-kontratuarekin, parte hartu behar zuen administrazio-prozedurekiko lege-segurtasunik eza sortzen zuen.

Horregatik, 2002. eta 2003. urteetan Mankomunitateak lanpostuak baloratu eta horien funtzioak deskribatzeko prozesua burutu zuen. Halaber, lanpostuen zerrenda (LPZ) egin eta onartu, hizkuntza-eskakizunak atxiki eta Mankomunitatearen aurrekontu-langileak gauzatu zituen. Horien guztien ondorioz, gerentzearen postua zuzendari teknikoa izateko funtzionario bihurtu behar zela ikusi zen, garatzen zituen funtzio publikoak kontuan hartuta. Gerentzearen postua goi-mailako industria-ingeniariak betetzen zuen eta goi-mailako zuzendaritzari dagokion lan-kontratua zuen. Funtzionario bihurtzearen prozesua 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskadiko Funtzio Publikoari buruzkoak, seigarren behin-behineko xedapenean eta 16/1997 Legeak, azaroaren 7koak, aurrekoa aldatzen duenak, lehenengo behin-behineko xedapenean oinarrituta egin zen, funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoei atxikitako Euskadiko herri-administrazioen lanpostuak berriz sailkatzea ahalbidetzen baitzuten, funtzioen izaerarekin bat. Era berean, berriz sailkatu ondoren, titularrek horren ondorioz ateratakoa lor zezaketen hautespen-prozesu mugatuaren bitartez. Hala, goi-mailako zuzendaritza-kontratuak eta lan-kontratu finkoak baliokideak zirela ulertzen zen. Ez zen inolako administrazio-jardueraren kontra egin eta erakundeek, Mankomunitateko kideek edo partikularrek ez zuten zalantzan jarri.



2.- Gaikuntza nazionala duten tokiko administrazioko funtzionarioen lege-araubidea, funtzio publikoaren eremu honetarako berariazkoa eta berezia, azkeneko aldian, 7/2007 Legeak, apirilaren 12koak, Langile Publikoari buruzkoak, bigarren xedapen osagarrian zehazten du. Hori 8/2010 Errege Dekretu Legeak, maiatzaren 28koak, defizit publikoa murrizteko ohiz kanpoko neurriak hartzen dituenak, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera aldatu zen eta “metaketel” dagokienez, besteak beste, 1732/1994 Errege Dekretuak, uztailaren 29koak, gaikuntza nazionala duten tokiko administrazioko funtzionarioei gordetako lanpostuak hornitzeari buruzkoak, 31. artikuluko hirugarren atalean garatzen du. Arau horren kontra ez da egin eta, beraz, indarrean dago. Horretan xedatutakoaren arabera, gaikuntza-lanpostuak mantentzearen beharraz salbuetsiak dauden tokiko erakundeetan “metatutako funtzioak garatuz gero, haborokina jasotzeko eskubidea izango da eta lanpostu nagusiari dagokion ordainsariaren 100eko 30era irits daiteke”. Aipatu idazkerak “lanpostu nagusia” aipatzen du, beraz, metatu behar diren funtzioak nagusiarekiko beste postu baten funtzioak izango direla ulertu behar da eta mantentzetik salbuetsia dagoen erakundearen postuari dagozkion funtzioak izango dira. Era berean, “haborokina” hitza aipatzen bada eta lanpostu nagusiarekiko muga (%30) zehazten bada, funtzioan lanpostu nagusiari dagozkion funtzioen barruan ezin daitezkeela sar ulertu behar da. Kasu horretan, lanpostuaren balorazio berri egin beharko litzateke eta, hala balegokio, berariazko osagarriak zenbateko berria izan beharko luke, baina inoiz lanpostu nagusia garantzen duen erakundeak emandako “haborokina”. Edozelan ere, metatutako funtzioak iraunkorrak dira, metaketak dirauen bitartean eta haborokin finakoak nahiz aldizkakoak sortuko dituzte.

Ondorioz, gure lege-antolamenduan (1732/1994 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, GNFri gordetako funtzioak betetzeko “funtzioak metatzeari” buruzkoa) zehaztutako sistema, funtzio horiek betetzeko lanpostuak funtzionario-mota horiekin mantentzez salbuetsiak dauden tokiko erakundeetan, salbuespenezko sistematzat jo behar da. Horre-tan lege-segurtasunaren eta eraginkortasun ekonomikoaren printzipioak konbinatzen dira eta bateraezintasunei buruzko legeriak ez zaizkio aplikatzen, “funtzioak metatzen” baitira eta ez “lanpostuak”. Beste edozein interpretaziok zentzugabeko ondiora da-rama eta aipatu araua ezin daiteke aplika, edozein tokiko erakundetan GNFri gordetako funtzioak dituzten lanpostuen titular guztiak zuzendaritza-postuak baitira eta, beraz, beste edozeinekin bateraezinak. Halaber, arau horretan aurrez ikusitako haborokinaren kontzeptua salbuespenezkoa da, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskadiko Funtzio Publikoari buruzkoak, 79 d) artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta. Horrek funtziona-rioztako haborokinak bakarrik ohiko lanalditik kanpo egindako ohiz kanpoko zerbi-tzuetarako aurrez ikusten ditu. Gainera, zenbatekoan ezin daitezke finakoak izan, ezta sortzapenean aldizkakoak ere.

Aurreko oinarriengatik, legearen ikuspegitik zuzenagoa, errazagoa, konplexutasun gutxiagokoa eta funtzioak metatzeagatik gaitutakoak jasotako haborokinaren zenbatekoa kontrolatzeko gardenagoa da Mankomunitateak erabiltzen duen haborokinaren sistema. Horregatik, ziur aski, Euskadiko eta Espainiako tokiko administrazioan zabalduenetari-koa da eta HKEEK babestutako sistema aplikatu duen tokiko erakunderik ez da ezagu-tzen. Dirudenez, interpretazio hori mantentzen du Madrilgo Erkidegoko Kontuen Gan-berak 2000. ekitaldiko Hego Mendebaldeko Mankomunitateari dagokion Fiskalizazio Txostenean.



Idazkari kontu-hartzaileak funtzioak betetzeagatik urtean Mankomunitatean jasotzen duen haborokin gordinaren proportzioa Barakaldoko Udalean idazkari nagusiaren lan-postua betetzeagatik urtean jasotzen duen ordainsari gordin guztiarekin alderatuz (bi zenbatekoak 2010. urtekoak dira), ehuneko hamasei koma laurogeita bikoa (%16,82) da.

## II.2. URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

HKEEK 2010eko abenduaren 31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideen artean hiri-hondakinen balorizazio energetikoarengatik 2010eko azaro eta abenduko ECOEM-BESen fakturazioa (47.003,94 euro, BEZ kanpo) eta ZABALGARBI, S.A. sozietateak 2010eko abenduaren 31n kitatutako interesak (57.917 euro) sartzen ditu. Horiek Manko-munitateak ZABALGARBI, S.A. merkataritza-enpresari balorizazio energetikorako plantaren eraikuntza finantzatzeko emandako mendeko maileguaren ondorioz sortzen dira.

ECOEMBES, S.A. sozietateari egindako fakturazioari buruz, Mankomunitateak 2010. ekitaldian onartutako eskubide bezala ez zuen sartu eta hurrengo moduan justifika dai-teke: Mankomunitateak alde aurretik ezin dezake aurreikus eta aurrekontuan sar ECO-EMBES, S.A. sozietateari egin behar dion fakturazioa, sozietate horrek fakturatu behar diona jakinarazten ez duen bitartean. Horretarako, ECOEMBES sozietateak balorizatzen duen erakundearen (ZABALGARBI, S.A.) datuak, dagokion denboraldian udal man-komunitatek isuritako tonei buruzkoak, jaso behar ditu eta sinatutako hitzarmenaren eta ECOEMBESek duen finantzazioaren arabera, hiri-hondakinen ekoizleek (kasu honetan Mankomunitateak) kobratzeko balorizazio energetikoaren ehunekoak aplikatzen ditu. Hortik zehazten da Mankomunitateari dagokion zenbatekoa. Nolanahi ere, eragiketa hori Mankomunitateari egozterik ez dagoen arrazoiarengatik atzerapenarekin egiten da. Laburbilduz, Mankomunitatearen ustez, eskubideak ezin dakizkioke ekitaldi bati egotz, aipatu ekitaldia jada itxia (abenduaren 31n) dagoenean eta ekitaldiari dagokion kitapena sinatu denean (2011ko otsailaren 12a). Zehatz-mehatz esanda, ECOEMBES sozietateari 2010eko azaroa eta abendua 2011ko martxora arte ezin izan zitzaion fakturatu eta Man-komunitateko Gobernu Batzarrak 2011ko martxoaren 30ean egindako saioan onartu zuen, beraz, 2010eko ekitaldia itxia zegoen, baita kitapena egina ere.

Mankomunitate honen alde ZABALGARBI, S.A. sozietateak kitatutako interesei buruz, era berean, ezinezkoa izan zen kitatutako interesengatik eskubideak aurreko ekitaldietan bezala ekitaldian zehar aurrekontuan sartu edo onartzea, aldizka ezin daitezkeelako eska. Aurrekoari eutsiz, kitapena kanpoko erakundearen (aipatu merkataritza-erakundearen) arabera baita. Horrez gain, aipatu merkataritza-enpresak balorizazio energetikoaren planta eraikitzeko mailegua eman zuten banku-erakundeekin bere konpromisoak betetzearen mendeko mailegua da. Hala, 2004az gero urteko interesak ezin izan dira kitatu eta, ondorioz, kontzeptu horrengatik ezin izan da eskubiderik onartu. Izan ere, kitatutako denboraldia 2006ko urtarrilaren 24tik 2009ko abenduaren 31ra bitartekoa izan zen. Laburbilduz, Mankomunitatearen iritziz, jada ekitaldia itxia dagoenean eta ekitaldiari dagokion kitapena sinatu denean ezin daitezke eskubideak egotz. Mankomunitateak interesen kitapena 2011ko uztailean ezagutu zuen, 2010. ekitaldia itxia zegoenean, baita kitapena egina ere.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Bi kasuetan, Mankomunitateak "sortzapenaren" printzipioaren aldean, "zuhurtasunaren printzipioa" jarraitu zuen. Gure ustez, lehentasuna eman behar zaio, ogasun-doktrinaren zati handiak aldarrikatzen duen bezala, "diru-sarrerak" baitira. Ildo horri jarraiki, esku-bideak onartzen diren administrazio-egintzaren datan egotzi behar dira aurrekontuan. HKEEren irizpideak praktikan jarritz gero, Mankomunitateak aurrekontuaren kitapena atzeratu beharko luke eta kitapena onartzeko epea (urte bakoitzeko martxoaren 31) ez litzateke beteko. Beraz, 10/2003 Legea, abenduaren 2koa, Bizkaiko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzkoa, ez luke beteko.

### **III. BARNEKO KONTROL-SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK**

#### **III.1. GOGOETA NAGUSIA**

2. mailako tokiko erakundeak (mankomunitateak eta partzuergoak) edo erakunde pribatuak (sozietateak, fundazioak...) sortu, mantendu eta desegiteak aukera politikoa eta eraginkortasuna bultzatzen dituzte eta baloratzea herri-erakunde bakoitzeko organo politikoei dagokie.

Hala eta guztiz, HKEEren baieztapena, hau da, Zabalgardi, S.A. sozietate pribatuak Bizkaia osoko hondakinak kudeatzen dituela ez da egiazkotzat jotzen, aipatu sozietateak kudeatzen ez dituen hiri-hondakinen zatiak baitaude, besteak beste, tamaina handiko tresnak, errefus asko, kimaketak, papera, beira, olioak, plastikoak... Horrez gain, HKEEek ahazten ditu Mankomunitateak gauzatzen dituen antolaketa- eta bitartekaritza-lanak ez bakarrik ZABALGARBI sozietateak kudeatzen ez dituen beste hondakin batzuek kudeatzeko, baita hiri-hondakinen tratamendua jarraitu eta Zabalgardiaren plantara iristeko ere. Azkenik, lan horiek egin behar dira, planta ohiko mantentze-lanetarako edo sistema matxuratuta dagoelako gelditu behar denean. Modu horretan gertatu zen 2009. ekitaldian, alegia.

Bestalde, Zabalgardi, S.A. sozietate pribatua da eta hori sortzeko funtsezkoa izan zen sortzaile eta bezero bezala udal ugari eta beren hiri-hondakinak izatea. Ezkerraldearen kasuan, Mankomunitatean elkartuak zeuden. Ziur aski ez litzateke posible Zabalgardi, S.A. eratzea, Udalak banatuak baleude.

Nolanahi ere, ez da ahaztu behar Mankomunitatea, udal mankomunitatuen izenean, sortu eta gutxienez 25 urtez mantentzeko Zabalgardi, S.A. sozietatearekin konpromisoa hartu zuen pertsona juridikoa dela. Nahikoa marjina eman zitzaion kreditu-erakundeek Bizkaiko hiri-hondakinen kudeaketa-moduan sinetsi eta eraikuntza-obra finantzatzeko. Bizkaiko lurraldeko beste aktore batzuekin batera, hiri-hondakinak behar bezala kudea-tzen eta tokian edo probintzian gatazka-motarik ez izaten parte hartu behar zuen. Zalan-tzarik gabe, Bizkaiko eredia arrakastatsua izan da eta horren lekukoak lirateke eremua gutxi politizatu dela eta zerbitzuak kudeatzeko orduan eraginkorra izan dela. Horiek dira, hain zuzen ere, Euskadiko beste lurralde batzuek hartutako eruedetatik bereizten dituztenak.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.2. AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Legez aldaketa-espediterik izapidetu gabe egindako aldaketa bat 82,55 eurokoa da eta Barakaldoko Udalarekin guztira 12.252,85 euroko lankidetzaz-hitzarmena berritzeko izan zen. Beraz, onartutako aurrekontuaren kredituak ez zuen berritze-zenbateko guztia estali, aurrekontu-proiektua egin zenean ez baitzegoen aurrez ikusia hitzarmena KPIn (82,55 ) gehitu behar zela. Edozelan ere, hitzarmena Mankomunitateko Gobernu Batzarrak 2010eko urtarrilaren 21ean egindako saioan onartu zuen, hortaz, adierazi gabe aldaketa onartuta dagoela ulertu behar da, aurrekontuaren zenbateko guztia ez baitzuen aldatzen.

Beste kasuan, legez aldaketa-espediterik izapidetu gabe egindako aldaketa bat 44.781,67 eurokoa (BEZ barne) da eta Zabalgardi, S.A. sozietateak Mankomunitateari kalte-ordaina eman zionean gertatu zen. Helburua udal kideei, kalte-ordainaren azke-neko hartzaileei, Zabalgardiaren balorizazio-planta matxurarengatik geldituta zegoen bitartean hiri-hondakinak Igorreko zabortegira eramateagatik kalte-ordaina ematea zen. Egia da Gobernu Batzarrak 2010eko urriaren 19an egindako saioan erabaki bat hartu zuela zenbatekoa udal kaltetuen artean banatzeko eta erabaki hark kalte-ordaina jaso-tzeko eskubidea eta kreditua gaitzea ez zituela islatzen, baina egia da ere bai erabakia gauzatzeko orduan horiek atxikiak zeudela, gastua kreditua gaitu gabe ezingo bailitza-teke egin. Bi kasuetan zenbatekoak behar bezala kontabilizatu ziren, Gobernu Batzarrak zegozkion espeditenteetan onartu zituen, “hiruhilekoko aurrekontu-informazioaren” bi-tartez Mankomunitateko Osoko Bilkuran jakinarazi ziren, baita 2010eko aurrekontu-kitapenean sartu ere.

### III.3. LANGILEAK

HKEEek lanpostuen zerrendako ordenantzaren lan-kontratuko plaza amortizatzearen beharra aurrez ikusten du, nahiz eta egungo egoerak aurrekontu-arazorik ez sortu. Dena den, betetzen zuen pertsona erretiratu ondoren, 2008az gero lanpostua hutsik mantendu arren, ez du esan nahi betetzea beharrezkoa ez denik, baina “krisialdian” Mankomunitatearen funtzionamendu-gastuak arintzeko egin da. Aurrekoari eutsiz, lehenik eta behin, helburua eszenatoki ekonomikoa aldatzea da eta, xede horrez, gastuan zuhurtzia eko-nomikoaren printzipioak aplikatzen dira.

2010. ekitaldian Mankomunitateak Osoko Bilkuraren lau (4) saio eta Gobernu Batzarraren sei (6) saio egin zituen. Gobernu Batzarrera edo Osoko Bilkurara joateagatik udal-batzako kide bakoitzak saioko laurogeita bost (85) euro jaso zituen. Zenbateko hori ekitaldikoa aurrekontuari zegokion Aurrekontua Gauzatzeko Arauak xedapen osagarrian zehazten du. Derrigorrezkoa den bezala, Araua hasieran Aurrekontuarekin batera onartu zen Osoko Bilkurak 2010eko urtarrilaren 21ean egindako saioan eta hasieran onartu izanaren iragarkia otsailaren 4ko 23. BAOn argitaratu zen. Behin betiko onarpenaren iragarkia martxoaren 4ko 43. BAOn argitaratu zen. Horretan berariaz aipatu zen Aurre-kontua Gauzatzeko Araua onartuta zegoela.”





## 0. ABREVIATURAS

<b>BOB</b>	Boletín Oficial de Bizkaia.
<b>BOE</b>	Boletín Oficial del Estado.
<b>CAE-EAE</b>	Comunidad Autónoma de Euskadi-Euskadiko Autonomia Erkidegoa.
<b>LCSP</b>	Ley 30/2007, de Contratos del Sector Público.
<b>LFPV</b>	Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca.
<b>Ley 16/1997</b>	Ley 16/1997 de modificación de la Ley de la Función Pública Vasca.
<b>LRBRL</b>	Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local.
<b>NF 3/1995</b>	Norma Foral 3/1995 Reguladora de Entidades de Ámbito Supramunicipal de Bizkaia.
<b>RPPFHN</b>	Real Decreto 1732/1994 Provisión de Puestos Reservados a Funcionarios con Habilitación de Carácter Nacional.
<b>RPT</b>	Relación de Puestos de Trabajo.
<b>TRLCAP</b>	Real Decreto Legislativo 2/2000, Texto Refundido Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
<b>TRRL</b>	Real Decreto Legislativo 781/1986 Texto Refundido disposiciones vigentes en materia de Régimen Local.
<b>TVCP-HKEE</b>	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas-Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
<b>Udalhitz</b>	Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo de las instituciones locales vascas.





## I. INTRODUCCIÓN

El TVCP-HKEE, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Programa de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado la Cuenta General de la Mancomunidad de Municipios de la Margen Izquierda de la Ría del Nervión (en adelante la Mancomunidad) del ejercicio 2010.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: Revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, bienes y servicios, y concesión de subvenciones.
- Contabilidad: Conformidad de la Cuenta General con los principios contables que le son aplicables. La Cuenta General contiene el balance de situación, la cuenta de pérdidas y ganancias, memoria y liquidación de los presupuestos de la Mancomunidad.
- El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto ni sobre los procedimientos de gestión. No obstante, los aspectos parciales que han surgido en la fiscalización están comentados en el epígrafe III de este Informe.
- Análisis financiero de la situación económica de la Mancomunidad.

La Mancomunidad está constituida por 7 ayuntamientos:

Ayuntamiento	Población 1/1/2010
Barakaldo.....	99.321
Portugalete .....	47.856
Santurtzi .....	47.101
Sestao .....	29.224
Valle de Trápaga-Trapagaran.....	12.317
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena.....	9.724
Ortuella.....	8.435
<b>TOTAL</b>	<b>253.978</b>

La Mancomunidad se creó en 1976 con objeto de gestionar los residuos y basuras de los municipios que la componen. Los residuos se depositaban inicialmente en un vertedero propio y a partir de 1988 en el vertedero de Artigas (Bilbao). En 1993 la Mancomunidad constituyó junto con la Diputación Foral de Bizkaia, el Ente Vasco de la Energía, una entidad financiera y dos empresas privadas la sociedad Zabalgardi, SA, que es titular de la única instalación de Bizkaia que realiza el tratamiento de los residuos del Territorio (incinerar y producir energía eléctrica). La Mancomunidad poseía el 5% de las acciones de Zabalgardi, SA a 31 de diciembre de 2009, siendo titulares del 60% las dos empresas privadas citadas anteriormente.



La Mancomunidad se rige por una Junta Plenaria compuesta por 17 concejales de los ayuntamientos miembros, eligiendo de entre sus miembros a la Comisión Permanente (7 componentes), al Presidente y al Vicepresidente.

## **II. OPINIÓN**

### **II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD**

#### **PERSONAL**

1. En 2003 la Junta Plenaria modificó la RPT corrigiendo la clasificación del puesto del Gerente que pasó de ser laboral con contrato de alta dirección a funcionario, convocando un proceso selectivo para la cobertura del nuevo puesto, restringido al anterior Gerente. Este tipo de procesos selectivos restringidos están previstos para personal laboral con contrato fijo (Disp. Adic. 2 Ley 16/1997), por lo que la dotación del nuevo puesto de funcionario debió realizarse con un proceso abierto que garantizara principios de igualdad, mérito y capacidad.
2. La Mancomunidad está exenta de mantener un puesto de trabajo con las funciones de Secretario-Interventor por Resolución de 7 de julio de 2004 del órgano competente de la CAE-EAE. Esta Resolución indicaba que sus funciones deben ejercerse en la Mancomunidad por funcionarios habilitados de los municipios mancomunados, incorporándose a las propias del puesto principal del funcionario que resulte designado. La Mancomunidad siguió abonando al funcionario designado en 1993 una gratificación con cargo a las consignaciones del capítulo de personal, 15.256 euros en 2010. En todo caso, procedería su abono al ayuntamiento mancomunado en que prestaba sus servicios, conviniendo previamente la dedicación precisa y la compensación a abonar a la administración municipal.

En opinión de este Tribunal, excepto por los incumplimientos descritos en los párrafos del 1 y 2, la Mancomunidad ha cumplido razonablemente en el ejercicio 2010 la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

1. Los ajustes que afectan al Remanente de Tesorería para gastos generales a 31 de diciembre de 2010, al Balance de Situación cerrado a esa fecha y a los Fondos Propios de la Mancomunidad son:
